

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGARDAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **“Legarda” izeneko VI-10197 ehiza-barrutiko aprobetxamendu zinegetikoaren lehiaketa publikoa**

Legardako Administrazio Batzarrak, batzar orokorrean, “Legarda” izeneko VI-10197 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikoaren esleipena lehiaketa publiko baten bidez egitea onartu zuen.

#### LEHIAKETA

- 1- Esleipena ematen duen erakundea: Legardako Administrazio Batzarra
  - 2- Kontratuaren arrazoa: Legarda izeneko VI-10197 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikoa
  - 3- Tramitazioa eta prozedura: premiazko prozedura, prozedura irekia, lehiaketaren bidez
  - 4- Oinarrizko lizitazio-aurrekontua: lau mila eta zortziehun euro (4.800€), BEZa kanpo.
  - 5- Esleipenaren oinarri izango diren irizpideak:
    - a. Bertako ehiztarien ordezkartza eta parte hartzea ehiza-barrutiaren kudeaketa eta aprobetxamenduan: 5 puntu arte
    - b. Erantzukizun zibileko polizaren bermea: 3 puntu arte
    - c. Diru eskaintza: Puntu 1 arte
  - 6- Behin-behineko bermea: mila lauhun eta berrogei euro (1.440€)
  - 7- Behin-betiko bermea: esleipenaren azken prezioaren ehuneko 5a, BEZa kanpo
  - 8- Informazioa eta agirien lorpena: 669355499 telefono zenbakira deituz (16:00ak eta 20:00ak arteko ordutegian), iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo zortzi (8) egun naturaletan.
  - 9- Alokatzeko denboraldia: hamar (10) urte
- “Legarda” izeneko VI-10197 ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikorako esleipena aurrera eramango da, baldin eta Arabako Foru Aldundiko Sail eskudunak berritze-espeditentea onartzen badu.

Legardan, 2019ko abuztuaren 6an

*Erregidore-lehendakaria*

*JUAN CARLOS GASTIAIN AGUINAGALDE*